

Ikasitako ikasgaiak

Konfiantza
Hurbiltasuna
Kontaktua

“Solidarioak
izan behar
dugu eta elkarri
lagundu”

ELENA IRURETA, AKTOREA



ZERBITZU OROKORRAK

Morlans, 13 - etxabea
20009 Donostia
Telefonoa 943 468 956
Faxa 943 466 714
idazkari@hurkoa.eus

ARRETA TUTELARRA

Morlans, 13 - behea
20009 Donostia
Telefonoa 943 468 956
Faxa 943 466 714
idazkari@hurkoa.eus

Gernikako Arbola pasealekua, 16
20006 Donostia
Telefonoa 943 468 956

Ferrerías, 32 - behea
20500 Arrasate
Telefonoa 943 770 938

Geltoki, 7
20301 Irún
Telefonoa 943 568 640

Kale Nagusia 60 behea
20720 Azkoitia
Telefonoa 943 468 956

Emeterio Arrese, 2
20400 Tolosa
Telefonoa 943 468 956

EGUNEKO ZENTROA

Ntra. Sra. de las Mercedes
Nafarroa etorbidea, 31
20013 Donostia
Telefonoa 943 293 111
cdmercedes@hurkoa.eus

**AURKIBIDEA**

2020ko gure jarduera	3. ORR.
Aurkezpena. Presidentearen gutuna.....	4 ORR.
Pandemiaren eragina ahulenengan	6 ORR.
Elkarrizketa Eduardo Clavérekin.....	8 ORR.
Lehenbizi, pertsona.....	10 ORR.
Konfiantza-irakaspena.....	12 ORR.
“Konfinamendua etengabe ikastea izan da”.....	14 ORR.
“Gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden adinekoak.....	15 ORR.
Pertsona hauskorrenengandik hurbil.....	16 ORR.
Hurbileko kontaktu pertsonalaren balioa	18 ORR.
Gure 30. urteurrena, pandemiaren kutsuarekin.....	19 ORR.
Elkarrizketa Elena Iruretarekin	20 ORR.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro



HURKOA 2020



> Laguntza jaso duten pertsonak

590 99 98

ARRETA TUTELARRA EGUNEKO ZENTROA HAUSKORTASUNA



> Profesionalak **65**



> Boluntarioak **129**



> Finantzaketa

1

HURKOA ZAINDUZ

Sarrerak: 1.147.541,82
Gastuak: -1.253.430,46
Emitza: -105.888,64

2

HURKOA (HAUSKORTASUNA)

Sarrerak: 205.967,01
Gastuak: -194.906,87
Emitza: 11.060,14

3

HURKOA ARRETA TUTELARRA

Sarrerak: 1.258.236,35
Gastuak: -1.254.650,44
Emitza: 3.585,91



> Non gaude

Arrasate

Azkoitia

Tolosa

Donostia

Irún

Txalo partekatua



OIHANA AGOTE
ÁLVAREZ ANDER
XABIER ARAMBURU
CARMEN ARRIETA
URIZAR ABEL BARCELO
ESPERANZA BLÁZQUEZ
CASLA YESSICA COSTA
POZO ARANTZA DEL POZO
M^a MAR ESTELLA MAIALE
GOLDARATZENA NELLY YANEZ
GONZÁLEZ ITSASO GONZÁLEZ
ARRITXU IBARZABAL HAIZEA IRIBAR
MARAÑÓN MARIVI MARTICORENA
SUSANA MONTESINO ENRIQUE OLLO
PEREIRA NURIA PÉREZ ALAIA PÉREZ
RODRIGUEZ NIEVES SAIZ LARA SÁNCHEZ
M^o JESUS TOLOSA GORKA URRETABIZKA
JANETH VIELMA M^a CARMEN ZUBILLAGA
AIZPURUA ROSEMARY SANCHEZ OLATZ ERRE
M^a JESÚS LÓPEZ M^a JESÚS PRADO REBECA
CORTES YAIZA BENGOTXEA MIREIA FERNÁNDEZ
MARTÍNEZ BAKARNE ETXEBERRIA MAIALE
FERNÁNDEZ JOSE IGNACIO DEL POZO LEIRE
URIARTE JUAN CARLOS MALET MIKEL MURO
CUESTA M^a LUISA ETXANIZ MARTA ÁLVAREZ DE A
EMILIO LAFUENTE BLANCA MORERA XABIER RE
ALBERDI JESÚS MARÍA FERRO BEGOÑA ZUBIMEN
MERCEDES SEGURA AURORA ELOSEGUI

30. urteurrena... pandemia-garaian

30. urteurrena nola ospatu pentsatzen hasiak ginen –azaroaren 20an 30 urte bete zituen Hurkoak–, lerro hauek idaztean oraindik ere erasotzen jarraitzen duen pandemiak dena “hankaz gora” jarri zuenean: konfinatuta, egun gutxi batzuk lehenago imajinaezina zen kezkak eta ondoezak jota, gure adineko pertsoneri egoitzetan lagundu ezinik, ezta gero eta gehiago ziren gaixoei ere, ezin agurturik gure senide maiteak... 2020. urtea bereziki gogorra bilakatu zen, oso zaila guztiontzat.

Indarrak ez zegoela zirudien tokitik indarrak aterata, elkarlana online egiten ikasi genuen! Baita geure burua “berrasmatzen” ere, COVID-19aren ondorioen aurka geure burua babesteko moduak bilatuz, gure tutoretzapekoei emandako arretak ondorio handirik izan ez zezan, Foru Aldundiarekin elkarlanean arituz egoitzetako beharrei erantzuteko –horri esker, gure langile guztiek lanean jarraitu zuten–, Egunekeo Zentroa berrantolatuz eta segurtasun-neurriak ezarriz, ahal bezain pronto berriro zabaldu ahal izateko. Hori guztia ahalegin kolektiboaren isla izan zen, eskuzabaltasunez betetako ahalegina, zalantza betetako une haietan: ahalegin eredugarria, duela hiru hamarkada gure fundatzaileak, Elizbarrutiko Caritasek, unerik zailenetan ere egindako apustuari erabat eutsiz; atzera begiratuz aitortu behar dugu 2020ko unerik gogoangarriena izan dela guretzat, txalorik beroena merezi duena.

Aipatutako hori funtsezkoena izanik, eta memoria honetan jasotako beste ekintza eta emaitza erabakigarri batzuekin batera, komeni da azpimarratzea Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuarekin lortutako tutoretzen balorazioari buruzko akordioa, urteko kostu erreala ia guztiz ordaintzeko aukera emango diguna. 2020an ere ez zaigu falta izan beste erakunde, entitate eta pertsona partikularren laguntza, beti ezinbestekoa. Gure eskerrik beroena haiei guztiei eta bereziki unerik zail eta ilunenetan guregana “Zer behar duzue?” galdetzeraz hurbildu zirenei –Caixabank, Realeko jokalaria, Prestakuntza Zentroak eta pertsona partikularrak, adibidez– eta beren esku zegoena egin zutenei ezohiko hainbeste beharri aurre egiten laguntzeko. Mila-mila esker bihotz-bihotzez!

JULEN ALBIZU JUAN ALONSO GLORIA
R AMUNARRIZ M^a EDURNE ARAMBURU
J OLAIA ARANA AINHOA ARANA M^a
MAIALEN ARTETXE LEIRE AZKARRAGA-
NILLA AMAIA BAREA VIOLETA BARQUÍN
Z MARÍA JESÚS CAMINO MARÍA
CRISTIANA DA SILVA JON ANDER DEL
O NEREA DIEZ SUSANA DOMÍNGUEZ
N GARAY AINHOA GASCUE FERMÍN
T GOMÉZ EMILIO GONZÁLEZ SANTIAGO
Z TERE GOZALO NOEMÍ HERNÁNDEZ
ASTORZA ENCARNI IRIGOYEN AITOR
A JOKIN MARTÍNEZ ARACELI MERINO
QUIEGUI MARÍA CRUZ ORTEGA CARLA
EVA QUINTANO EVELÍN REYES LEIRE
CHEZ KONTXI SERRANO MERTXE SILVO
KAIA VIKI VAZQUEZ LIDIA VICENTE
MARTA SUSANA ZUNZUNEGUI PAQUITA
MINA ANDER BIDEGI OHIANE PEÑALBA
GARCÍA OSTAISKA MANCISIDOR ELSI
ÁNDEZ MAIALEN AIZPURUA EDURNE
N ARTETXE PILAR GARCÍA MAITE
YARZA SONIA FROIZ ANDIKONA
KARMELE ALKARRETA JOSÉ LUIS DE LA
ARCAYA M^a JOSÉ VALDERRAMA JOSÉ
ETEGUI JOSÉ LUIS MARAÑÓN JESÚS
NDI XABIER ANDONEGI HILARIO SEIN

Pandemiaren eragina ahulenengan

COVID-19AK SORTUTAKO PANDEMIAREN ONDORIOEK INOIZ EZ BEZALAKO ERAGINA IZAN DUTE GURE BIZITZAN. EGOERA HORREK MUNDU GLOBAL HONETAN BIZI GAREN GUZTIOK ASALDATU GAITU. ERAGINA ARE LARRIAGOA IZAN DA ZAURGARRITASUN-EGOERAN DAUDEN KOLEKTIBOENGAN, HALA NOLA, MENDEKOTASUNA DUTEN ADINEKOENGAN ETA EGOITZETAN EDO GIZARTE-EGOERA AHULEAN DAUDEN PERTSONENGAN.

Mendekotasuna duten eta zaurgarritasun- eta hauskortasun-arriskuan dauden pertsonen laguntzeko asmoa duten gizarte-erakundeei -besteak beste, Hurkoari- lotutako zazpi pertsonako talde batek hausnarketa-dokumentu bat egin du pandemiak kolektibo horren eraginari buruz.

“Behaketa Talde” horren hastapenak 2017. urtean aurkituko ditugu, Aubixa Fundazioak eta AFIGI-k “autonomia galdu duten adinekoen, Alzheimer-en gaixotasuna dutenen eta zaintzaileen eskubideen Donostia Gutuna” onartzea proposatu zutenean. Garai hartan garatutako prozesu hartatik ateratako ondorioetako bat izan zen, hain zuzen, nahitaezkoa zela bitartekoren bat sustatzea, behaketa-, ebaluazio- eta jarraipen-dinamika baten bidez, gizarte zibilak lehen aipatutako pertsonen eskubideak benetan bete zitzaizkien laguntzeko.

Zeregin hura gizarte zibileko hainbat erakundeko ordezkariak elkarrekin egin beharko luketela aintzat hartu zen; alegia, diskriminazio- eta babesik gabeko egoeran daudenei zerbitzuak emateko, kudeatzeko eta arreta emateko ardura duten erakundeetako eta Alzheimer-en gaixotasuna dutenez arduratzen diren erakundeetako ordezkariak. Hortik sortu zen “Behaketa Taldea” eta, besteak beste, Koldo Aulestiak (Afigi), Martin Auzmendi (Aubixa Fundazioa), Eduardo Clavék (Bioetikan aditua), José Agustín Arrietak (AGIJUPENS), Pura Díaz Veigak (Matia Institutoa) eta José Luis de la Cuestak eta José Luis Marañónek (Hurkoa) osatzen dute taldea.

Taldeak bilerak egiten ditu aldizka eta haren hausnarketak eta ondorioak gizarteari eta erakundeei helarazten dizkie. Testuinguru horretan, 2020ko azaroan, “Covid-19aren pandemia eta zaurgarritasun- eta hauskortasun-arriskuan dauden pertsonak: behatutako arazoak eta jarduera-proposamenak” dokumentua osatu zuten. Dokumentu horretan, hautemandako egoerak eskubideen ikuspegitik aztertu eta, era berean, koronabirusarekiko hainbat jardunbide soziosanitario hobetzeko proposamenak egiten dira. Ildo horretatik, “zaurgarritasun-egoeran dauden gizarteko alderdiei arreta hobetu nahian, sentsibiltate politiko eta sozial guztien ekintza-batasuna” aldarrikatzen dute.

BEHATUTAKO ARAZOAK ETA JARDUERA-PROPOSAMENAK

Hurrengo orrialdeetan, dokumentuak jasotzen dituen alderdi nagusien laburpen bat egingo dugu. Dokumentua osorik kontsulta daiteke QR kodea eskaneatuz.

Oso garai arraroak bizi ditugu. Gerta zitezkeen ere inoiz pentsatuko ez genituzkeen egoerak. Baina egoera horiek gertatzen dira. Gertatzen dira eta oso errealitate ezezagun batera garamatzate, ez geunden prest halako errealitate baterako eta errealitate hark irtenbideak bilatzeko elkarlanean jardutera eramán gintuen.

Adin kronologikoaren irizpideetan oinarritutako diskriminazioa

Adinak ez du pertsonen egoera aurretik zehazten, gaitasuna judizialki aldatuta dutenen kasuan ez ezik; beraz, adinekoek herritartasun osoa dute eta, hortaz, haien eskubide politikoak eta sozialak errespetatu egin behar dira, beste edozein biztanleria-talderen eskubideak errespetatzen diren moduan.

Baliabide sozio-sanitario gutxi egotea, gertatuko balitz, hori ez litzateke arrazoi izan behar gaixotasunagatik edo pobrezia-gatik babesik gabe dauden alderdien diskriminazioa bultzatzeko. Ildo horretatik, kontuan hartu behar da zeinen arriskutsua den



adinekoen “urruntze soziala” edo haien bizitzaren amaiera bakardadean edo baldintza soziosanitario txarretan bizitzea.

Modu orokorrean eta bereizi gabe ezartzen diren protokoloak

Protokoloen helburua hainbat irizpide eta jardunbide xedatzea da, batetik, akatsak murriztuko dituzten osasun- eta gizarte-jardunbideak bermatzeko eta, bestetik, esperientziatik eta eza-gutza zientifikotik jasotako onurak hedatzeko. Hala ere, protokolo horiek egoitzen, egoitza horietako erabiltzaileen eta etxeetan artatzen diren pertsonen egoeren behar bezalako ezagutzarik gabe erabiltzen badira, protokoloak arazoen eta jardunbide kaltegarrien iturri bilaka daitezke adineko mendekoentzat.

Mendekotasuna duten eta dementziak dituzten adinekoen zuzeneko arreta ematen dieten langileen urritasuna

Mendekotasuna duten adinekoek eta/edo osasun mentalaren alorreko arazoak edo dementziak dituzten adinekoek esku-hartze sanitarioen eta laguntza sozialen multzo koordinatuak behar dituzte, komitantean jarrai dezaten eta eskubide osoko herritar gisa errespetatu diezaizaten bermatzeko.

Belaunaldien arteko arrakalaren ahalduntzea

Adinekoen bizitzak gazteen bizitzak baino gutxiago balio duen ideia geroz eta sakonago ari da sartzen gure gizartean. Adinekoak zamatzat hartzen direla antzeman dezakegu, gastuen iturritzat. Gauza berbera gertatzen da ezgaitasunen bat edo buru nahasmenduren bat duten pertsonen kasuan.

Informazioaren eta komunikazioaren eginkizuna

Agintari politikoen eta sanitarioen zabalduetako informazioak eta komunikazioak aurrez aurre dugun errealitatea hobeto ezagutzeko baliagarria izan beharko luke. Litekeena da orain arte agintari eskudunek emandako informazioak ez dituela xedetzat hartutako helburuak lortu eta, ondorioz, herritarren zenbait alderdik ez dute lortu agintari politikoen eta sanitarioen gomendioei buruz kontzientziaztea, ez eta gomendio horietan parte hartzea ere.

Maskarak eskuratzea eta behar bezala erabiltzea

Kontsentsu zientifikoei buruzko dokumentu guztiek maskaren erabilera zuzen eta masiboaren alde egiten dute. Maskaren

erabilera unibertsalak osasunerako eta herrialdearen ekonomiarako onurak ekartzen ditu. Faltan ematen ditugu etengabeko informazio- eta prestakuntza-neurri limurtzaileak. Hauskortasun ekonomikoak -benetakoak edo hautemandakoak- ez du zertan izan behar biztanleek orokorrean eta, batez ere, biztanle zaurgarriek maskarak eskuratzeko eragozpen.

Nahasmena eta banaketa eragiten duten jardunbideak eta jokabideak

Oso kezkarria da gizartea nahasi eta bana ditzaketen jardunbideak eta jokabideak antzematea. Jardunbide-eredu horiekin zenbait arazo konpontzetik oso urrun egongo gara eta, are, lehenagotik zeuden zenbait desberdinkeria areagotu egin daitezke.

Horretarako, bereziki garrantzitsua da alderdi inplikatuak, zeinen erabakiak pandemiaren kontrolerako oso adierazgarriak baitiren, elkarrekin aurre egin diezaizoten aurrez aurre dugun erronkari.



Eduardo Clavé

MEDIKUA



“Optimista izan nahiko nuke eta pentsatu, gertatutakoaz ikasiko dugula”

EDUARDO CLAVÉ BARNE MEDIKUNTZAN ESPEZIALISTA DA. BIOETIKAN ADITUA, DONOSTIAKO OSPITALEKO ETIKA BATZORDEKO KIDEA ERE BADA. BERE IBILBIDE PROFESIONALEAN ZEIN PERTSONALEAN, HAINBAT ETA HAINBAT EGOERA BIZI IZAN DITU, NON PERTSONAK BEREN BIZITZAREN AMAIERARA IRITSI DIREN EDO HAIEN

OINARRIZKO GAITASUNETAN ERAGINA IZAN DUTEN GAIXOTASUN LARRIAK IZAN DITUZTEN. BERE GOGOETETAN ETA BIZIPENETAN OINARRITUTA, HAINBAT LIBURU ETA ARTIKULU IDATZI DITU GAI HORIEN INGURUAN, ETA ZENBAIT EKIMENETAN ERE PARTE HARTU DU; HALA NOLA, “BEHAKETA TALDE” HONETAN.

Pandemiak errotik aldatu al du zaurgarritasun-egoeran dauden gure gizarteko pertsonen bizimodua?

Pandemiak "errotik" aldatu digu bizimodua, ez soilik kolektibo horri, baita gizarte osoari ere. Egia da, era berean, pandemiak agerian utzi dituela mendetasun-eta hauskortasun-egoeran dauden pertsonen arretan gure gizartean dauden arrakalaketa gabeziak. Azaroan argitaratu genuen dokumentuan, nabarmendu genuen zer-nolako arriskua izan zezaketen kolektibo horiek "urruntze sozialaren" ondorioz edo bizitzaren amaiera bakardadean edo baldintza soziosanitario txarretan bizitzearen ondorioz.

**"AURREZ AURRE DUGUN
ERRONKAK BEREKIZIKO
GARRANTZIA DU, HAINBESTE,
NON KONTUAN HARTU BEHAR
BAITIREN SENTSIBILITATE
POLITIKO ETA SOZIAL GUZTIAK"**

Egin dezagun autogogoeta pixka bat: zer egin dugu ongi eta zer hobetu beharko genuke?

Uste dut pandemiaren hasierako hilabeteetan bizitako egoerak gure gizarteko kide gehienak artegatu zituela ikuspegi psikiko eta emozionaletik -ni neu ere kaltetuen artean sartzen naiz- eta oso zaila izan zen, ezinezkoa ere, kolektibo bakoitzarentzat, pertsona bakoitzarentzat egokiak liratekeen neurriak ezartzea.

Behaketa Taldeak zenbait gogoeta eta proposamen egin zituen, aukerako irtenbideetan laguntzeko asmoz. Inoiz baino beharrezkoagoa zela alternatiben bilaketan borondate guztiak batzea eta gizartean banaketa eragiten duten jarrerak oso kaltegarriak zirela garai hartan sortu ziren arazo larriei aurre egiteko pentsatu genuen.

**"GIZARTE GISA, EZ NAGO ZIUR
ZERBAIT IKASI DUGUNIK"**

Bizi izan genuen halako egoera batean, posible litzateke hartu beharreko neurriak kolektibo bakoitzari eta pertsona bakoitzari egokitzea?

Seguru asko ez litzateke posible izango pandemiaren lehenbiziko hilabeteetan, baina gaur egun, hori

egingarri izateko ahaleginik handienak egin beharko lirateke.

Beharrezkoa al da zerbitzu soziosanitarioen zeregina berriz pentsatu eta definitzea?

Pandemia berebiziko lurrikara izan da gure bizitzetan, sekulako astindu soziala eragin du. Pertsonalki, ez naiz gai iradokitzeke zerbitzu soziosanitarioen planteamendu edo definizio berri bat. Aldiz, uste dut aurrez aurre dugun erronkak berebiziko garrantzia duela, hainbeste, non kontuan hartu behar baitiren sentsibilitate politiko eta sozial guztiak eta aukera eman behar baitzairen, egungoa bezalako egoerei edo etorkizunean sor daitezkeen egoerei aurre egiteko gai diren zerbitzuak aztertu eta diseinatzeko.

Krisi honetatik zerbaite ikasi dugula uste al duzu?

Gizarte gisa, ez nago ziur zerbaite ikasi dugunik. Hori da orain arte dudaren sentsazioa. Uste dut krisiaren eta informazioaren kudeaketan hainbat akats egin direla eta horrek nolabaiteko mesfidantza eragin duela erakunde-ordezkariegan. Denboraldi honetan zehar hartu izandako zenbait neurri ez dira oso ulergarriak izan. Akaso, pandemiaren ondorioak jalkitzen doazen heinean, gaizki zer egin zen edo beste modu batera zer egin zitekeen hobeto ulertuko dugu.

Neuri dagokidanez, nolabaiteko atzerakada nabaritu dut. Konfinamendu-garaian, osasun-langileak eta gugatik bizitza arriskatu zuten beste zenbait kolektibo inoiz ez bezala balioetsi genituen. Gerora, asmo

**"EGUNGOA BEZALAKO
EGOEREI EDO ETORKIZUNEAN
SOR DAITEZKEENEI AURRE
EGITEA AHALBIDETUKO DUTEN
ZERBITZUAK DISEINATU BEHAR
DITUGU"**

onak lausotuz joan ziren gizartearen zati batean eta solidaritate gutxiagoko jarrerak joan dira agertzen.

Posible al da sentsibilitate politiko, sozial eta soziosanitario guztiak bateratu eta koordinatzea?

Eguno errealitateak kontrakoa erakusten badu ere, nik uste dut baietz, posible dela. Hori da, hain zuzen, gure bizitzako garai aztoratu horretatik atera dezakegun irakaspenetako bat. Hala izango balitz, gure gizartearen etorkizunerako urrats kualitatibo handia emango genukeela deritzot.



Lehenbizi, pertsona

HURKOAREN JARDUERAN IZUGARRIZKO ERAGIN HANDIA IZAN DU PANDEMIAK. ARTATUTAKO PERTSONA GEHIENENTZAT GAUZA ASKO ALDATU DIRA, HAIEN BIZITZETAN ORAINDIK ERE OSO MUGA HANDIAK DAUDEN ARREN. BEREZIKI, ADINEKOEN EGOITZETAN BIZI DIREN PERTSONEN, EZGAITASUNA DUTENEN EDO GAIXOTASUN MENTALA DUTENEN KASUAN; IZAN ERE, HAIEN BIZITZAK EGUN BATETIK BESTERA ERABAT ALDATU DIRA, OSASUN FISIKOA BABESTE ALDERA.

2020ko martxoan, Hurkoaren tutoretza arloa gai izan zen bizkortasunez ingurune berrira moldatzeko zerbitzuak eskaintzen jarraitze aldera, lan-talde guztiaren konpromisoari eta inplikazioari esker. Malgutasun hori erabakigarria izan da azken urte luzean gainditu behar izan diren oztopo handien zein txikien etapa guztietan.

Nolanahi ere, tutoretza-arloaren aldetik, ez dugu autokritika egitea saihestuko; izan ere, agian, komenigarria izango litzatekeela pentsa dezakegu, konfinamenduan zehar, beren etxeetan tutoretzapean bizi diren pertsonekin presentziatzeko lana areagotzea. Egia da artatutako pertsona guztien beharrei erantzun

geniela, baina laguntza-, entzute- eta asistentzia-harremana ezin izan zen gertuagotik garatu, gaixotasunari buruzko ezjakintasuna orokorra zelako.

Gaur egun, ordea, argi dago behar diren neurriak hartuta, presentzia handiagoko arreta- eta zainketa-prozesua burutu daitekeela, egonkortasun eta lasaitasun handiagoa ekartzeko halako egoera konplexuetan.

Edonola ere, arloko arduradunak, Susana Montesinok, onartu du "garai hauetan hautemandako kezka nagusietako bat dela, hain zuzen, atzerapauso bat eman ez ote den pertsonen autonomia sustatzeko bidean, arreta are paternalistagoaren eredura itzuliz".

ETXEAK ETA EGOITZAK

Etxebizitzetan bizi diren pertsonen arreta oso lan nekeza izan da Hurkoarentzat, batik bat, ohiko etxez etxeko arreta bermatzerakoan, behar izan denean arreta hori sendotu egin da eta, era berean, garantizatu, behar duten guztia izatea; besteak beste, elikagaiak, medikamentuak, zaintza pertsonala, arretaren antolamendua koarentenan egotekotan eta haien zaintzaren eta aldi berean isolamenduaren bermea, Covid-19a harrapatuz gero. Orokorrean, pertsona horiek nahiko ongi eraman dute egoera, nahiz eta denborarekin batera, zenbait kasutan gaixotasun mentalean desorekaren bat izan den eta horrek osasun-laguntza behar izan duen ere, eta, kasuren batean, ospitaleratu egin behar izan den ere.

BIZIPENEK ARE NABARMENAGO ERAKUSTEN DUTE ZEINEN BEHARREZKOA DEN PERTSONAK HAIEN EGOERARI BURUZKO ERABAKIEN ERDIGUNEAN JARTZEA

Egoera oso bestelakoa izan da egoitzetan bizi direnen pertsonentzako. Kasu honetan, Hurkoaren zeregina neurri handi baten arreta zuzenari dagokionean murriztu egin zen. Nolanahi ere, zenbait kasutan, birusarekiko babesak tutoretzapeko pertsonak artatzea eta haien bestelako beharrei erantzutea eragotzi izan du.

Baina zailtasun horiek guztiak ez dituzte soilik adinekoek bizi, baita egoitzaren batean bizi diren eta ezintasun ezberdinak edo buruko arazoak dituztenek ere.

IRAKASPEN NAGUSIAK

Azken urtean izandako bizipenek are nabarmenago erakusten dute zeinen beharrezkoa den pertsonak haien egoerari buruzko erabakien erdigunean jartzea, batez ere, ezin badute erabaki horietan zuzenean esku hartu. Hurkoak artatutako pertsonak bereziki zaurgarriak dira, beren interesak defendatzeko oso gaitasun mugatuak dituzte. Denbora horretan guztian, haiengan zuzeneko eragina izan duten erabaki asko hartu izan dira, betiere haien babesari begira, baina ezin izan zaie behar adina informazio eman, ezta zer gertatzen ari zen ulertzen lagundu ere.

Era berean, nabarmen geratu da familiak oso garrantzitsuak direla eta, ahal den neurrian, familiak aintzakotzat hartu eta tutoretzapeko pertsonekin harremanak sustatu behar ditugula.

Profesionalen ikuspegitik, prozesu horretatik ikasi beharreko gauzarik garrantzitsuena da beharrezkoa dela oraindik ere pertsonarengan oinarritutako arreta-ereduan sakontzen jarraitzea, are gehiago halako egoera zailetan.

NORMALTASUNA AL DATOR BERRIZ ERE?

Orokorrean, tutoretza-arloko jarduera nagusiak berriz ere berreskuratu ditugu, nahiz eta beharrezko egokitzapenak egin diren inplikaturako pertsona guztien segurtasuna bermatzeko. Litekeena da egungo zenbait babes-neurri etorkizunean ere mantentzea eta horrek behartzea jarduera horiek egiteko modua aldatzera era iraunkorrarekin.

Tutoretzapeko pertsonak eta haien familiek ez dute gainontzeko gizarteak eskatzen ez duenik eskatu: harremanak izatea, etxetik ateratzea, paseatzea... ahalik eta normaltasun handienez.

ARLO TUTELARRA

ARTATUTAKO PERTSONAK
590 artatutako pertsonak
276 emakumeak
314 gizonak

141 80 urtetik gorakoak
145 65-79 urtetik bitartekoak
183 50-64 urtetik bitartekoak
108 30-49 urtetik bitartekoak
13 29 urtetik beherakoak

FAMILIAK
111 lehen kontsultak
29 familia artatu



Konfiantza- irakaspena

EGUNEKO ZENTROA

Astelehenetik ostiralera

90 artatutako pertsonak

77% emakumezkoak

84 batez besteko adina

73% mendekotasun ertaina/larria

24% mendekotasun handia

Asteburuan

52 artatutako pertsonak

75% emakumezkoak

84 batez besteko adina

71% mendekotasun ertaina/larria

21% mendekotasun handia

ZIURGABETASUN-EGOERETAN, NUESTRA SEÑORA DE LAS MERCEDES EGUNEKO ZENTROAK BIZIIZANDUEN BEZALAKOETAN, KONFIANTZA FUNTSEZKO EZAUGARRI BIHURTU DA PANDEMIA HONETAN IGAROTAKO ETAPA BAKOITZEKO ARAZOEI AURRE EGITEKO. ZENTROKO ZUZENDARITZAREN, PROFESIOALEN, ERABILTZAILEEN ETA HAIEN FAMILIEN ARTEKO ELKARRENGANAKO KONFIANTZA. ELKARREN ARTEKO KONPROMISOA, BIRUSAREN HEDAPENA EKIDITEKO ETA HURKOAKO ZENTRORA EGUNERO ETORTZEN DIREN PERTSONEI BEHAR DITUZTEN ZAINTZAK ETA ARRETA EMATEKO.

2020ko martxoaz geroztik, Nuestra Señora de las Mercedes eguneko zentroa etengabeko aldaketa-prozesuan dago, eskaintzen dituen zerbitzuak osasun-eskakizunetara moldatzeko.

Aurtengo otsailean eta martxoan profesionalei eta erabiltzaileei txertoak jartzeak lasaitasun handia ekarri zuen, baina ez da inolaz ere istorioaren amaiera.

Gogotsu espero dugun normaltasuna oraindik ere ez da iritsiko, baina hainbat aldaketa izan dira eta, seguru asko, finkatu egingo dira aldaketa horiek.

Zentroko zuzendariak, Nieves Saizek, uste du "krisi honek lan-talde gisa indartu eta gure lanean are hobeak egin gaituela". Gipuzkoako Foru Aldundiak eguneko zentroak ixteko erabakia hartu zuen iazko martxoaren 14an, Covid-19ak eragindako alarma-egoera sanitarioaren aurrean. Nuestra Señora de las Mercedes zentroan, egun batetik bestera hartutako erabaki hark ziurgabetasuna eta beldurra eragin zuen lehenbizi, birusaren arriskua zela eta. Sentsazio hori zentroko profesionalek ez ezik, erabiltzaileek, haien familiek eta boluntarioek ere izan zuten.

Lehenbiziko ezustekoaren ondoren, egoerari aurre egiteko prozesu bati ekin zitzaion. Ez zegoen ezer ere argi, ez bazen zentroko pertsona guztien segurtasunari lehentasuna ematea eta familiei laguntzea zentroko erabiltzaileen arretan, beren etxeetan geratu behar izan baitzuten zentroak itxi ostean.

Zentroko egungo errealitateari dagokionez, elkarbizitza-gune handiak alde batera utzi eta burbuila-taldeak eratu dira, jaialdi handiak ere ahaztu eta ospakizun txikiagoak egiten dira. Urruntzearen ondorioz, zentroko erabiltzaileak ez dira lekutik mugitzen zentroan antolatzen diren hainbat ekitalditan, bakoitza bere leku zehatzean geratzen da eta jarduerak talde batetik bestera eramaten dira. Erabiltzaileen arteko harremana minimora murriztu da, ez da kanpo-bisitarik onartzen eta boluntarioak ere ez dira ohi bezala etortzen, erabiltzaileekin egon eta haiei laguntzeko.

Zentroan egunero 70-80 pertsona inguru bizi dira elkarrekin. Erabiltzaileak eta langileak egunero itzultzen dira haien etxeetara, familiekin bizimodu

propioa dute, beste pertsonetik harremanak dituzte, eta horrek kutsatze-arriskua areagotzen du birusarekiko oso sentikorrak diren pertsonak dauden gune batean. Horregatik, hasiera-hasieratik egin izan dugu konfiantzazko eta erantzukizuneko lana, talde guztiei eskatu zaie bizitza sozial mugatua izateko eta osasun-gomendio guztiak betetzeko.

Hala, Nuestra Señora de las Mercedes zentroak birusa zentroko ateetatik kanpo uztea lortu zuen, urrian agerraldi bat antzeman zen arte. 14 erabiltzaileri eragin zien, eta haietako bat hil egin zen. Izan ere, Nieves Saizek dioen bezala, "arau guztiak betetzen badira ere, zoriak badu bere garrantzia".

Zentroko erabiltzaileei eta langileei txertoa jartzeari esker, etapa berri bati ekin zaio zentroko bizitzan, zeinak esperientzia horren ondoren, bi irakaspen garrantzitsu nabarmentzen dituen etorkizuneko erronka berriei begira: arreta indibidualizatuen egitasmoetan sakontzen jarraitzea eta erabiltzaileen zaintzen jarraitutasunari irtenbidea aurkitzea, beren etxeetan daudenean edo zentrora ezin dutenean joan.

Birusari aurre egiteko 4 urrats

Konfinamenduaren hasierako uneetako beldur eta ziurgabetasunaren testuinguruan, Hurkoako eguneko zentroko profesionalak lau urratseko ibilbide bat osatu zuten, arazoari aurre egiteko asmoz.

1. SOLIDARITATEA

Nuestra Señora de las Mercedes zentroko profesionalen taldeak hainbat egoitzatan hasi ziren lanean, mendekotasun eta hauskortasun-egoeran zeuden pertsonen arreta-zerbitzuak sendotzeko.

2. HAUSNARKETA

Adinekoek, mendetasun-egoeran dauden pertsonak izanik, beren etxeetan geratu behar izan zuten, haien familiekin, zentroan jasotzen dituzten zainketa espezializaturik gabe eta gainerako gizarteak baino denbora-tarte luzeagoan. Hortik sortu zen, hain zuzen, adinekoekin esku-hartzeko zer eredu ezartzearen auzia, haien ongizatea bermatze aldera.

3. ARAZOEI IRTENBIDEA AURKITZEA

Azken garai honetan, adinekoek zentrotik kanpo izaten zituzten ohiturek eragin negatiboa izan dute. Jarduera gutxiago egin dituzte, gutxiago mugitu dira... Eta horrek guztiak eragina izan du haien osasun-egoeran. Familiek, gainera, bizitza pertsonala zein profesionala eta adinekoen zaintza uztartu behar izan dituzte, eta horrek oso egoera zailak sortu izan ditu etxe askotan.

4. SORMENA

Laugarren urratsean, biharko egunean pentsatzen hasi ziren. Eta, hala, Hurkoako profesionalen taldeak sormenaz baliatu ziren zentroak berriz irekitzerakoan nola jardun hausnartzeko, pertsona guztientzat espazio osasuntsu eta segurua eratze aldera. Hausnarketa hartatik sortu ziren hainbat neurri; besteak beste, higiene-protokolo berriak ezartzea, espazioak eta zentrorako lekualdaketak birmoldatzea, burbuila-talde txikiak eratzea, jarduerak berriz ere asmatzea, erabiltzaile bakoitzarentzat banakako mahaia jartzea egunero desinfektatutako materialekin bakoitzak nahierara egin zitzaizen jarduerak, jangelako, podologiako, ile-apaindegiko eta abarreko zerbitzuak berregokitzea.



SANTIAGO LÓPEZ GALDONA

“Konfinamendua etengabe ikastea izan da”

SANTIAGOK 75 URTE DITU ETA ERABAT OSASUNTSU DAGO. BERE EMAZTEA, 73 URTEKO MAIKA, NUESTRA SEÑORA DE LAS MERCEDES ZENTROKO ERABILTZAILEA DA IAZKO URTARRILETIK. ALZHEIMER-AK JOTA, HURKOAKO ZENTROAN SARTZEKO ESKAERA EGITEKO ERABAKIA HARTU ZUTEN, SANTIAGOK, MAIKAREN ZAINTEAILE NAGUSIAK, ARNAS HARTZEKO ETA BERE BURUA ZAINTEKO DENBORA BEHAR ZUELAKO. ZENTRORA EGUNERO JOATEN HASI ETA BI HILABETERA, PANDEMIAREN ONDORIOZ ZENTROAK NAHITAEZ ITXI BEHARRAGATIK MAIKAK ETXEAN GERATU BEHAR IZAN ZUEN KONFINATUTA SENARRAREKIN.

Nola ohartu zinen neke-zantzuak zenituela zaintzaile gisa?

Ez da bat-batean gertatzen den zerbait. Maldan behera nindoala ikusi nuen eta ohartu nintzen ezin izango nuela jarraitu behar bezala zaintzen etxean 24 orduz. Halako pertsonen erabateko arreta behar dute eta denbora asko kentzen dizute. Egun osoan gauza berberak galdetzen dizkizu eta oso egoera nekagarriak sortzen dira ondoan dituen pertsonentzat. Eta ohartu nintzen ezin nuela gaizki egon, ni gaizki banago, nire emaztea ere gaizki egongo delako.

Nolakoa izan zen konfinamenduaren esperientzia, eguneko zentroak itxi ostean?

Konfinamenduaren esperientzia oso txarra izan da, oso gogorra. Bat-batean atzerapauso handia izan zen, bi hilabetez gure bizitzak nolabait konpontzea lortu ondoren. Halako pertsonentzat errutina funtsezkoa da: egunero gauza berberak egin behar dituzte, modu berean, eta edozein aldaketak asaldatu egiten ditu. Azkar egokitu zen Maika, baina nik ere egoera berrira moldatu behar izan nuen eta pentsatu zer jarduera egin zitzakeen egun osoan zehar, zereginen bat izan zedan eta ahalik eta lasaien egon zedin.

Nola antolatu zineten?

Geldialdia bat-batekoa eta bortitza izan zen. Seme-alabek ezin zuten bisitan etorri... Egoeraren jabe nintzenez, etxeko laguntza-zerbitzu bat kontratatu nuen, arratsaldero norbait etor zedin eta nik arnas hartzeko tartea har nezan. Nire emazteak ezin du ni gabe egon, beraz, ongi egon behar dut bera zaintzeko.

Baratze txiki bat egin nuen balkoian, denbora-pasaren bat izateko, egoera horrek izugarri akitzen baititu zaintzaileak. Bestea lasaitzen ikasi behar duzu, poliki hitz egiten, baxu, lasaitasuna ematen. Eta horrek badu bere alde ona, aldi berean zeure buruari ere lasaitasun eta baretasun hori ematen baitiozu, ezinbestekoa aurrera jarraitzeko.

Beharrezkoa al da zaintzaileak are gehiago aintzat hartzea?

Ez gara inor, existitzen garenik ere nork jakingo ote du. Zaintzaileok, 24 orduz arreta behar duten pertsonekin gaudenok, ezinbestekoak gara. Administrazioak jakin beharko luke guk huts egiten badugu, bere gain hartu beharko lukeen zaintzen zama izugarria izango litzatekeela eta baldintza okerragoetan gainera.

Gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden adinekoak

HURKOAK ETA MATIA INSTITUTUAK BARNE®HARTU PROIEKTUA GARATU DUTE AZKEN HILABETEETAN, GIZARTE-BAZTERKERIAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK AZTERTZEKO. EKIMENAK ADINBERRI FUNDazioAREN LAGUNTZA IZAN DU, ETA GURE LURRALDEAN BIZI DIREN 60 URTETIK GORAKO 1.650 PERTSONEN ERREALITERA HURBILDU DA.

Lortutako argazkiak lurraldearen gizarte-errealitatera egokitutako politika eta estrategia zehatzak definitzen lagunduko du, zahartze-prozesuan gizarteratzea errazteko.

Azterlanak bi aldaera izan ditu, bata kuantitatiboa eta beste kualitatiboa, eta bi biztanleria-segmentu aztertu ditu: alde batetik, zahartzen ari diren pertsonak eta errealitate horri lotutako bazterketa-faktoreak, eta, bestetik, bazterketa-egoeretan bizi izan diren eta zahartzen ari diren pertsonak.

Bazterketatik zahartzea

Bigarren multzo horretan askotariko kasuak eta egoerak detektatu dira, baina beren egoera kokatzen duten bi egoera partekatzen dituzten dimentsio anitzeko gabezia batetik abiatuta; gabezia horrek arlo ekonomikoa gainditzen du eta beren bizitzako alderdi askori eragiten die: iraganeko uneraren batean beren biografiak behera etorri izana, eta, orainaldia, beren bizitzak laguntzarako hainbat erakunde-

baliabidetatik gainbegiratura. Horrek guztiak zahartze-ari buruzko interes falta orokorra elikatzen duela dirudi.

Iragana gainditzeko prozesuan laguntzeak eta autonomia ekonomikorik ez izateak erakundearekiko mendekotasun-egoerak sortzen ditu.

Arreta-ereduak ez du gizarteratzen laguntzen, eta, beraz, laguntza hori bizitzaren amaierara arte luzatu behar izatea ekartzen du.

Bazterketa zahartzetik

60 urtetik gorako Gipuzkoako biztanle gehienek egoera global onargarria dute gizarteratzearen ikuspegitik. Zerbitzu publikoetarako sarbidea, gizarte-harremanak eta bizilagunak pertsonen ehuneko handienak egoera ahulenean jarriko lituzketen egoerak bizi dituzten dimentsioak dira.

Emakumean eta adinean aurreratuak diren pertsonak ahultasun-arrisku handiagoan daude.

Barne ® hartu: Adierazleak eta dimentsioak

BALIABIDE MATERIALAK ETA FINANTZARIOAK

% 70 inguruk ez lukete arazo ekonomikorik izango.

GIZARTE-HARREMANAK

80 urtetik gorakoen artean, % 42k bakardade pertzepzioa du.

AUZOA ETA KOMUNITATEA

% 31k komunitate-sentimendu txikia du, arazoak auzoetan, bandalismoa, delinkuentzia...

GIZARTEAREN ALDERDI SOZIOKUTURALAK

% 63k ez du aitortzen diskriminaziorik jasan duenik eta ez du adinkeria pertzepziorik.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Pertsonen % 6k soilik parte hartuko luke jardueramota desberdinetan, eta ez luke arazorik izango herritar gisa dituzten eskubideak defendatzeko.

Pertsona hauskorrenengandik **hurbil**



PANDEMIAREN ETA KONFINAMENDUAREN ONDORIOZ, ADINEKO ASKO AHULAGO SENTITZEN DIRA. BAKARDADE- ETA ISOLAMENDU-EGOERA ASKO AREAGOTU DIRA, BAINA, ALDI BEREAN, GIZARTE-SAREAREN BALIOA ETA HAUSKORTASUN-EGOERAN DAUDENEN PERTSONENTZAT LOTURA PERTSONALEN GARRANTZIA NABARMENDU DIRA.

Hurkoa hauskortasun-egoeran dauden pertsonen arreta emateko Hauskor programa ezartzen hasi zen Arrasaten eta Pasaian, osasun-alarma piztu zenean. Oztupo garrantzitsua izan zen; izan ere, bereziki zailtzen ziren gizartea hurbiltzeko prozesuak eta hauskortasun-egoeran zeuden pertsonekin loturak sortzeko prozesuak.

Hala eta guztiz ere, Hurkoak azken urteotan lortu duen esperientziari esker, etxebizitzetako isolamenduaren ondorioz hauskortasun-egoera larriagoa zuten pertsona batzuentzat balio bereziko zenbait esku-hartze abian jarri ahal izan ziren.

Azkoitian, Hauskor aurreko urtetik zegoen ezarrita, eta kontaktu eta arreta birtualeko lana egin ahal izan zen, telefono bidezko elkarrizketen eta bideo-deien bidez, jada programan parte hartzen zuten pertsonekin.

Helburu nagusia zen zuzenean jakitea nola eragiten ari zen Covid-19ak sortutako egoerak 65 urtetik gorako pertsonen eta oinarrizko beharrak asetzeko baliabiderik ba ote zuten jakitea. Harremanetan jarri ziren pertsona guztiek adierazi zuten oinarrizko beharrak beteta zituztela edo familiakoekin edo bizilagunekin moldatu zirela. Hala ere, kasu askotan, bereziki emozioei eustea landu behar izan zen.

HAUSKORTASUNA

Artatutako pertsonak

69 Ohiko arreta

25 aldian behingo arreta

4 kontsulta berriak

HAUSKOR PROGRAMA:

12 Arrasate

15 Azkoitia

24 Pasaia

Egoera honek agerian utzi du adineko asko isolatuta daudela. Horregatik, kasu batzuetan, errazago onartu dute laguntza, bakardade sentimendua eta ahultasun handiagoa nagusitu baitira.

Azken urte honetan bizi izan ditugun egoerek adineko pertsona gero eta ahulago bihurtzen dute, Bakarne Etxeberria Hauskor programaren arduradunak azaldu duenez. "Batzuek laguntza- eta laguntasun-sareekin harremana galdu dute, antolatutako jardueretan parte hartzeari utzi diote. Horrek guztiak areagotu egin ditu pandemiaren aurretik zeuden hauskortasun egoerak, bakardade sentimendua, estimulazio falta... baina orain nabarmenagoak dira."

Emozionalki, oso garai gogorra izan da hauskortasun-egoeran dauden pertsonentzat. Denbora asko igaro behar izan dute bakardadean, eta hainbat adierazpen ikusi dira: tristura, apatia, segurtasunik eza, orainaldiaren eta etorkizunaren ikuspegi negatiboa, beste pertsona batzuekin harremanetan jartzeko beldurra, etxetik ateratzeko beldurra edo beste pertsonak beren etxeetan sartzeko beldurra. Inguruabar horrek agerian utzi du gizarte-sarearen balioa eta ahulezia-egoerekiko lotura pertsonalak.

HAUSKOR PROGRAMAREN HELBURUAK

- 1.** Hauskortasun-egoeran dauden adinekoen arreta ematea, gizarte-beharrak asetzeko gizarte-laguntza eskainik, eta, horrela, bizi-baldintzak hobetuz.
- 2.** Mendekotasun- eta isolamendu-arriskuko egoerak saihestea, erantzun eraginkorrak aktibatuz kasuak garaiz detektatzen direnean.
- 3.** Hauskortasun-egoeran dauden adinekoen gizarte-sarea eta sare komunitarioa indartzen laguntzea, adinekoak lurraldeari lotuz, harremanak ezartzeko aukerak sortuz, gizarte-sarea indartuz eta sare komunitariora hurbiltzen lagunduz.
- 4.** Ingurune eragileak sentibilizatzea; komunitateko beste eragile batzuekin batera, hauskortasun- eta isolamendu-egoeretan egon daitezkeen adinekoak sentibilizatzeko eta detektatzeko lana eginez. Sare bat sortu nahi da komunitateko eragileekin, hauskortasun-egoerak detektatzeko.

Hurbileko kontaktu pertsonalaren balioa

HURKOAK GARATZEN DUEN BOLUNTARIOTZA-LANEAN EZIN DA ORAINDIK HITZ EGIN PANDEMIAREN AURREKO ETA ONDORENGO BATI BURUZ, EZ BAITAKIGU ZEIN EGOERA IZANGO DUGUN GUZTIA AMAITZEN DENEAN. HALERE, BOLUNTARIOEN JARDUERAK GELDITZEAK, ZIURRENIK, ERAGIN NEGATIBOA IZAN DEZAKE.

Hurkoako boluntario bakoitzak modu desberdinean bizi izan du pandemiaren egoera. Batzuek ahal bezain laster jarraitu nahi zuten jarduerarekin, eta beste batzuek, berriz, itzultzeko nahiaren eta birusaren beldurraren arteko eztabaida zuten beren buruarekin. Horrek inpotentzia eta frustrazio maila handia eragin die pertsona horietako askori.

Lehen, boluntario-lana oso presente zegoen egoitzazentrotan, non boluntarioek laguntza-lana egiten zuten. Edonola ere, gaur egun zaila da hori egitea, zentroetan sartzeko mugak direla eta. Azken urte luze honetan zehar, zentroetan dauden pertsonen eta boluntarioen arteko lotura mantentzen saiatu gara, baliabide teknologiko eta bideodeien bidez, baina ez da gauza bera. "Galdu egin da laguntza pertsonalaren hurbiltasuna" ziurtatzen dute.

Aurrerantz begira

"Hurrengo egunerako" helburua da, koronabirusaren krisialdi hau gainditzeko dugunean, boluntarioen jardueraren funtsa berreskuratzea, haien lana ez baita ulertzen hurbileko eta zuzeneko harremanik gabe. Hori dela eta, espero dute harreman zuzen horri berriro heldu ahal izatea eta behar duten pertsonen berriz ere laguntzea, hori baita boluntarioen jardueraren nagusia.

Era berean, Hurkoaren eta boluntarioen arteko harremana ere aldatu egin behar izan da, ezin izan baitira aurrez aurreko prestakuntza- edo harreman-topaketak egin boluntarioen artean, eta horrek eragina izan du taldean. Hala ere, etengabeko ahalegina egin dugu boluntarioek jardueraren noiz egin jakin dezaten, edo beren ku-hartzea egiten zuten pertsonen egoerari buruzko informazioa ematen.

Osasun-krisialdi honen alde positiboa da gizarte-sentsibilizazio handiagoa piztu dela, eta horrek boluntario berriak erakarri dituela erakundera.

Eragina

Hurkoako boluntarioen laguntza jasotzen zuten pertsonengan izandako eragina, nagusiki, alderdi emozionaletan gertatu da, oinarritzko beharrak ase ahal izan baitira.

Baina utzikeria, bakardadea, ziurgabetasuna, apatia, tristezia, desorientazioa, mugikortasuna galtzea edo, oro har, osasuna okertzea orokortu egin da zenbait unetan boluntarioen laguntza zuten pertsona gehienek artean.

Egoitzazentrotatik atera eta bisitak jasotzeko aukera izan da denbora horretan guztian egon den eskaera nagusia.

Gure 30. urteurrena, pandemiaren kutsuarekin

COVI-19AK IAZ ERAGOTZI ZUEN HURKOAK 30. URTEURRENA OSPATZEA, EZIN IZAN GENUEN GUGANDIK HURBILEN ZEUDEN PERTSONEKIN UNE BEREZIA PARTEKATU. NOLANAHI ERE, AUKERA ONA IZAN ZEN GURE 30 URTEKO JARDUERAREN IBILBIDEAN ATZERA BEGIRATZEKO ETA, BATEZ ERE, ETORKIZUNeko ERRONKA NAGUSIAK PROIEKTATZEKO.

Urteurren honetarako aukeratutako esloganak behar den guztia adierazten du: "Zure ondoan jarraitzea da gure oparirik onena". Hurkoaren konpromisoa da lanean jarraitzea artatzen ditugun pertsonen bizikaltate eta ongizatea hobetzeko, tutoretza-arloaren bidez, 'Ntra. Sra. de las Mercedes' eguneko zentroaren bidez edo hauskortasun programaren bidez. Azken 30 urteotan, Hurkoak 6.000 pertsona baino gehiago artatu ditu, eta 4.000 familia inguru aholkatu ditu, kasu askotan, egoera bereziki zailetan.

Azken 30 urteotan, Hurkoak aldatzen ari den gizartearekin batera egin du aurrera. Gizarteraldaketan eta pertsonen bizi-itxaropen handiagoaren ondorioz, inoiz baino beharrezkoagoa da gure lana, hauskortasun-, mendekotasun- edo babesgabetasun-egoeran dauden adineko edo gaixotasun mentala duten pertsonen eskubideak zaindu eta defendatzeko. Hurkoak artatzen dituen pertsona eta horien familien ongizatea eta bizikaltate handiena lortzea da gure tutoretza-jardueren, hauskortasun-arretaren eta eguneko zentroaren xedea.



Gipuzkoako Foru Aldundiaren bisita instituzionala

Erakundeen arteko lankidetzak

30. urteurrenaren testuinguruan, Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak eta Maite Peña Gizarte Politikako foru-diputatuak Hurkoara bisita egin zuten, Hurkoako presidente, José Luis de la Cuesta, Maria Luisa Otaño, presidenteordearekin eta José Ignacio del Pozo, zuzendari kudeatzailearekin elkartzeko. Diputatu nagusiak eskerrak eman zizkien Hurkoa osatzen duten pertsona guztiei, langileei, boluntarioei eta familiei, beren "lan eskerga" egiteagatik, Gipuzkoako pertsonarik ahulenei lagunduz, tutoretza-jardueraren bidez eta mendekotasun-egoeran dauden adineko pertsonen, ezgaitasuna duten pertsonen eta gaixotasun mentala dutenei arreta eskainiz.

Gainera, Hurkoarekin lankidetzak-hitzarmena zabaltzeko konpromisoa iragarri zuen Olanok, eta "pertsona ahulenen babesetik pandemiari aurre egiten" jarraitzeko konpromisoa ere adierazi zuen. Hitzarmena 60.000 euroan handituko da aurre, gehien behar duten pertsonak babesten laguntzeko.

José Luis de la Cuesta Hurkoako presidentek Foru Aldundiak Hurkoari ematen dion laguntza aitortu nahi izan du, eta hauskortasunarekiko arreta etorkizuneko erronka gisa jarri du.

Elena Irureta

AKTOREA



“Ahulagoak sentitzen gara, baina baita hurbilagoak eta baliteke solidarioagoak ere”

Elena Irureta gure bizitzen parte da duela asko. Elenaren pertsonaiak eta interpretazioak gurekin izan dira 80ko hamarkadaz geroztik. Zumaian jaio zen, han bizi da eta bertan erretiratzeko pentsamendua du. Donostiako Arte Dramatikoko Antzerki Eskolan egin zituen ikasketak. Euskadin batetik bestera hasi zen hainbat antzerki-lanekin, emanaldi bakoitzerako eszenatokia aktoreek muntatu eta desmuntatzen zuten garaian.

Euskadin 80ko hamarkadaren hasieratik bizitu zen kultur mugimenduaren ezinbesteko protagonista izan zen. Euskaraz egindako fikziozko lehen telesailetan hartu zuen parte; “Bi eta Bat”, “DBH”, “Eskabetxerak”... besteak beste. Antzerki-lanak ere idatzi ditu, “Ama, begira ezazu” kasu; hori erreferentziazkoa izan zen euskal eszenan.

Antzerkia, telebista eta zinea lagun izan ditu bere ibilbidean, baita Euskaditik at ere. Bittoriren papera “Patria” telesailan —Fernando Arambururen

eleberrian oinarritutako telesailan— egin dituen interpretazioen artean txalotuenetakoa izan da ziur asko. Arrakastak ez du aldatu, ordea, bere burua “praktikotzat” duen emakume hau; familiaz eta lagunez gozatzen jarraitzen du.

Zure ustez bizitzan zortea izan duen pertsona bat al zara?

Bai. Inguruari begiratu besterik ez dut egin behar ohartzeko zer zortedunak garen.

2020. urteak, pandemiaren urteak, une profesional garrantzitsuak ekarri dizkizu bizitzara, baina baita oso egoera zailak ere. Nola bizitu duzu?

Hala da, urte zaila izan da eta garai gazi-geza bizitu dut.

Arlo pertsonalean zer ikasi duzu?

Hemen denbora laburra igaroko dugula eta denak emanda aprobetxatu behar dugula ikasi dut.

Gizarte gisa zerbait ikasi al dugu zure ustez? Pertsona hobeak eta indartsuagoak izango ginela esan ziguten.

Ez dakit indartsuagoak ote garen... Nire ustez denok sentitzen gara ahulagoak, baina baita hurbilagoak eta baliteke solidarioagoak ere.

“HEMEN DENBORA LABURRA IGAROKO DUGULA ETA DENAK EMANDA APROBETXATU BEHAR DUGULA”

Zure kasuan, inpaktu profesional bikoitza jasan duzu, batetik aktore gisa eta bestetik Zumaian duzun landetxearen jabe gisa. Nola kudeatu duzu krisi-egoera hori?

Urte hau oso gogorra izan da alderdi profesionalean, baina, hala eta guztiz ere, lasaitasunez eta baikortasunez bizitu dut, beti egin dudana moduan. Duela urtebete, garai honetan, ospitaleratuta nengoen eta nahiko gaizki pasatzen ari nintzen, beraz, eskertuta eta pozik sentitzen naiz gaur, lanaren arloan gauzak nahi bezala ez doazen arren. Baina tira, datorrena datorrela, egokitu beharra dago...



Bittoriren paperean, “Patria” telesailean

Aktoreen lana oso aldakorra da. Egoera horretan bizitzera ohituta egoteak lagundu al dizu hobeto eramaten garai hauetan bizi dugun ziurgabetasuna?

Bai, jakina. Nik inoiz ez ditut egin epe luzerako planak eta are gutxiago orain.

Kulturaren ikuspegi berri bat egongo al da azken urte honetan gure bizitzan izan duen garrantziaren ostean?

Ezin dut imajinatu nola igaroko genuen pasa den urtea libururik, telebistarik, musikarik, zinerik, antzerkirik... gabe. Nire ustez mundu guztia jabetu da kulturak gure bizitzan duen garrantziaz.

Aktoreek interpretatzen dituzten pertsonaiak moldatzen laguntzen dute, eta alderantziz?



“NIRE USTEZ MUNDU GUZTIA JABETU DA KULTURAK GURE BIZITZAN DUEN GARRANTZIAZ”

Interpretatutako paperen ezaugarririk gehitu al zaio zure izateko moduari?

Ez. Interpretatzerako garaian soilik sartzen naiz paperean. Lana amaitzen dudanean, pertsonaiaren arropa eta makillajea kendu eta hurrengo lanegunaren zain geratzen da pertsonaia.

Oraindik asko falta da, baina noizbait pentsatu al duzu nola gustatuko litzaizukeen zahartzaroa antolatzea?

Inoiz ez dut pentsatu nire etorkizuna antolatzea, baina hemen jarraitzen badut, gutxi gorabehera orain arte bezala bizitzen jarraituko dudala pentsatzen dut, familiaz eta lagunez inguratuta...

Zahartzearen beldur al zara? Zer da zahartzea zuretzat?

Ez, zahartzeak ez dit inolako beldurrik ematen, baina bai gaixotzeak. Argi dago urteak betetzearekin batera gaitasunak galtzen ditugula, baina osasuna izanez gero, bizitzako beste etapa on bat izan daitekeela uste dut eta etapa guztiak aprobetxatu behar ditugu!

Pertsona gisa zer heredatu duzu zure gurasoengandik?

Haien antzera, ni ere pertsona ona naizela uste dut.

Zer da familia Elena Iruretarentzat?

Niretzat familia funtsezkoa da bizitzan. Ez dut nire burua familiarik gabe imajinatzen. Familia zabala gara eta oso elkartuta gaude.

Zure familian, norbait berezia baldin bada, Telmo iloba da hori. Garuneko paralisia du eta zure urratsak jarraitzen ditu aktore gisa. Zergatik da hain berezia zuretzat?

Telmo pertsona oso berezia da. Ez niretzat soilik, ezagutzen duen ororentzat baizik. Gizon dibertigarria da eta izugarritzko sen komikoa izateaz gain, bizitzari aurre egin eta gatza ematen dio. Telmo bezalako jende gehiago egongo balitz, bizitza alaiagoa,

argitsuagoa... izango litzateke; hitz batean, hobe izango litzateke.

Zer deritzozu Hurkoa bezalako gizarte-erakundeek pertsona zaurgarrienei laguntzeko gure inguruan egiten duten lanari buruz?

Lan bikaina iruditzen zait zaurgarritasun-egoeran daudenei laguntzea. Denok igarotzen ditugu une zailak eta solidarioak izan behar dugu eta elkar lagundu.



Oso pertsonala

Antzeztu dituzun pertsonaietatik, zein duzu gogokoen eta zergatik?

Ez dakit. Denek dute beren "hura". Interpretatzen dudana pertsonaia bakoitza gustatzen zait, baina lehen esan dudana bezala, neure pertsonaiarekin geratzen naiz.

Nola lortzen da "Patria"rekin lortutakoa bezalako arrakasta?

Niretzat arrakasta beti izan da proiektu berrietan nirekin kontatzen jarraitzea. Gainerakoak pasadizo politak dira.

Zure arrakastak modu berezian ospatzen dituzu?

Ilusioz eta ni kontuan izan ninduten pretzonekiko esker onez, istorio hau kontatzeko.

Nola deskribatuko zenuke zeure burua hitz bakar batekin?

Ez dakit... praktikoa, agian.

Zure bizitzako zerbait aldatuko zenuke?

Esaera zahar bat dago: ikusi ondoren, denak prest. Beno, ba gaur egungo ikuspegiarekin, egin nituen akats asko saihestuko nituzke, baina tira, denetarik ikasten da!

Zein da zure pasio zapuztua?

Pasioa, pasioa... ez dakit... Uste dut benetan gustatzen zaidan horretan aritu naizela, baina ez da gauza bakarra, eta gauza desberdinak egiten ere ondo pasatuko nukeen.

Zerk aspertzen eta dibertitzen zaitu?

Uff, ez dakit, uste dut gauza eta persona askok aspertzen nautela, eta gauza eta pertsona askok dibertitzen nautela.

Erretiratzeko leku bat?

Zumaia, nola ez!